

KONTRATAZIO BALDINTZAK

1- Onarpena:

Urtxintxa Aisialdiko Eskolaren www.urtxintxa.eus atarian erosketa egin ahal izateko, "Erosketa eskaeran" azaltzen den ONARTU botoia sakatu beharko da erosketa egin baino lehenago. Onarpenaren ondoren, erabiltzailea URTXINTXAen Bezeroa izango da Kontratazio-Baldintza Orokor hauetan zehazten den bezala. Urtxintxa Aisialdiko Eskolaren kontratu honen ondoren eskainitako beste edozein produktuk beste kontratazio bat beharko du.

2- Prezioak:

Produktu bakoitzari dagokion web orriko prezioa eskaera egiten den unekoa da, denek BEZa gehitua dute (Balio Erantsiaren Zerga). Eskaintza bereziak ondo adierazita eta identifikatuta egongo dira, aurreko prezioa eta eskaintzaren prezioa modu egokian azalduko dira.

Bidalketa gastuak produktuaren salneurrian kontutan hartu dira. Produktuaren bidalketa prozesua ez da abian jarriko ordainketa egin arte. Erosketa egiten den unetik bezeroak adierazitako helbidera produktua heltzeko epea gehienez astebetekoa izango da. Bidalketa epe hori normala da eta Urtxintxaren jardueratik at dauden gertaerek eragin dezakete entrega epea luzatzea. Produktuaren itzulketa onartzeko baldintza bakarra produktua akastuna izatea da.

3- Datu pertsonalak eta komunikazio pertsonalak:

Abenduaren 13ko 15/99ko Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, Bezeroari jakinarazten zaio, produktua erosten duenean ematen dituen datuak Urtxintxa Aisialdiko Eskolaren fitxategian gordeko direla harreman komertziala errazteko; eta nobedadeen, produktuen eta zerbitzuen berri emateko idatzizko zein bide elektronikoak erabilia.

Bezeroak komunikazio komertzialak jasotzeko baimena ken dezake edozein unetan, idezkaritza@urtxintxa.eus helbidera mezua bidaliz. Enpresa hauen jarduerak arlo editorialekoak, hezkuntzakoak, kulturakoak eta urruneko salmentakoak dira.

Erosketa egiten duen unetik 30 egunetara bere mezurik jaso ezean Urtxintxa Aisialdiko Eskolak Bezeroak baimena ematen duela ulertuko da. Bukatzeko, jakinarazten du Bezeroak datuak sartzeko, aldatzeko eta bertan behera uzteko eskubideak erabil ditzakeela. Horretarako, ondorengo bi helbide hauetako batera idatzi beharko du: Urtxintxa Aisialdiko Eskola Mundaiz Bidea 8 - 2ºE, 20.012 Donostia (Gipuzkoa) edo idezkaritza@urtxintxa.eus.

Bezeroaren datuak gordetzearen helburua ondorengoak dira: gurekiko Bezeroak duen kontratuzko harremana kudeatzea; jarduera komertzialak eta publizitarioak egitea SMSen edo emailen bidez. Bezeroak iragarkirik jaso nahi ez baldin badu, bere kontuan sartu beharko du eta Newsletter edo informazioak atala desaktibatu.

4- Jabetza industrial eta intelektual:

www.urtxintxa.eus atarian azaltzen diren lanen, marken, logoen edo babesen behar duten beste edozein jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak Urtxintxa Aisialdiko Eskolarenak bakarrik dira; beste jabetzarik zehazten ez den bitartean.

Lanen, marken, logoen, etab.en erreproduzio, banaketa, komertzializazio edo aldaketa ez onartuak Urtxintxa Aisialdiko Eskolaren jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideen urraketa dira, eta ekintza judizialak garatu ahal izango ditu bere eskubideak babesteko.

Halaber, web orriaren bidez Bezeroak lor dezakeen informazioa ere babestua egon daiteke, jabetza industrialaren, intelektualaren edo bestelakoaren eskubideen bidez. Urtxintxa Aisialdiko Eskola ez da bezeroak egin ditzakeen urraketez arduratuko.

5- Legeak:

Kontratu honi aplikatuko zaion legea Lege Espainola da.

Donostiako epaitegi eta auzitegiek izango dute sortutako arazo edo gatazka ebazteko jurisdikzioa eta eskumena.